



TOLOSaKO HIZKUNTZA POLITIKaKO PLAN ESTRATEGIKOa

2025-2034

arOa

euskara indarbertzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



galtzaundi
EUSKARA EUSKALDUNEN



TOLOSA



KOKAPENA

Tolosako Udalak 2003ko maiatzean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa lehen aldiz, 2003-2007 epealdirako. Harrezkero, aldian-aldian egin ditu zegozkion planak: lehen urteetan, Euskara Biziberritze Plan Nagusia (EBPN) oinarri zuela, eta azken urteetan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) kontuan hartuta. Azkena 2022-2024 artekoa da.

Eusko Jaurlaritzak aldatu egin du euskara sustatzeko plan estrategikoen oinarria: AROA izango da aurrerantzean, *Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduentzeko marko estrategikoa*. Horren arabera landu da *Hizkuntza-politikako plan estrategikoa 2025-2034*.

Hizkuntza-normalizazioaren arloan bi plan ditu Udalak, eta komeni da biak argi bereiztea:

- *Tolosako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa 2023-2027*. Udal barrurako plana da, eta haren helburua da euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izatea Udalean. Horretarako jarduerak daude onartuta erabilera-planean.
- *Hizkuntza-politikako plan estrategikoa 2025-2034*. Udalerrira begirako plana da, eta, beraz, Udalaren hedaduratik haragokoa. Tolosan euskara indarberritzea du xede plan horrek, eta erabilera areagotzea batik bat. Hainbat ildotako ekintzak ditu.

Bigarren plan hori da dokumentu honetan jasotakoa, hau da, udalerrira begirako plana.

Udalaren eskumena

Tolosako Udalak eskumena du, euskara udal barruan sustatzeko ez ezik, udalerrian hizkuntza-politika garatzeko. Hala zehazten du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, 7.2. artikuluan: «*Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz*». Horrez gain, 2/2016 Legeak espresuki jasotzen du hizkuntza-politikako planak egiteko udal-eskumena: «*Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz*» (7.3. artikulua).

Tolosako Udalaren asmoa da lankidetzaz garatzea plan estrategikoa, herriko eragileekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean, Euskararen Aholku Kontseilua baliatuz. 2/2016 Legeak berariaz babesten du udalen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzak hori, 7.5. artikuluan: «*Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin*».

Tolosako plangintza partekatua 2017-2027

2017an, *Tolosatzen* prozesuaren barruan, hamar urterako ekintza plan bat egin zen, herri-eragileek, herritarrek eta Udalak landuta, izenburu honekin: *Tolosako plangintza partekatua 2017-2027*. Bertan bada euskararen sustapenari buruzko atal bat, ekintza hauek dituena:



TOLOSAKO
UDALA

- Euskarari buruzko sentsibilizazio ekimenak burutu.
- Espazio publikoan euskararen erabilera indartu.
- Eremu ez-formaletan euskararen erabilera indartu.
- Etorकिनen artean euskararen erabilera indartu.
- Udal administrazioan euskararen erabilera indartu.
- Alor pribatuan nahiz aisian euskararen erabilera indartu.
- Kulturgintzan euskararen erabilera indartu.
- Tolosarren euskara ezagutza eta kale erabilera handitu.

Udalak onartutako plana izanik, xede horiek txertatu dira hizkuntza-politikako planean ere.

Genero-berdintasuna

Plan honek izaera estrategikoa duenez, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin zaio proposamenari, kontuan hartuta zer xedatzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak: «*EAEko botere publikoek genero-ikuspegia sartu behar dute beren plan sektorialetan eta estrategikoetan, eta neurriak sartu behar dituzte berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko*» (25.1. artikulua). Hortaz, aurreikusi diren ekintza zehatz batzuetatik harago, genero-ikuspegiak zeharkako izaera du planean:


- Genero-berdintasunaren ikuspegia planaren ildo guztietan bermatu behar da.
- Ekintzen adierazleak finkatzean genero-berdintasunari buruzkoak txertatuko dira.
- Ikerketetan eta azterketetan berariaz jasoko dira datuak sexuaren arabera.
- Erabat bermatuko da hizkuntzaren erabilera ez-sexista, eta erabat saihestuko da estereotipo sexistak edo emakumeen bereizketa eragin dezakeen irudi oro.

1/2023 Legegintzako Dekretuak, orobat, interseksionalitatea aipatzen du printzipio orokorretan, 2.8. artikuluan: «*EAEko botere publikoek ikuspegi interseksionala sustatu behar dute beren politika publikoetan*». Horrenbestez, plan hau garatzean eta ebaluatzean kontuan hartuko dira askotariko interseksioak, elkarri lotutako zapalkuntzak eragozte aldera.



PLANA LANTZEKO PROZESUA

Hizkuntza-politikako plan estrategikoa lantzeko prozesua 2024an egin du Tolosako Udalak. Hamar urterako plana osatu denez, arnasa luzekoa, Tolosako Udalaren helburua izan da lanketa sakona egitea diseinuan, planak oinarri egokia izan dezan. Urrats hauek egin dira:



1. Abiapuntuko diagnostikoa landu

Udalerrriaren egoerari buruzko hiru dokumentu landu ditu Euskara eta Hezkuntza Sailak:

- Bilakaera demografikoa.
- Bilakaera soziolinguistikoa.
- Arloz arloko diagnostikoa.

Hiru txostenak ikusgai jarri dira Interneten, edozein herritarrek eta eragilek kontsultatzeko.

2. Partaidetza-prozesuak bideratu

Behin oinarrizko diagnostikoa eginda, ekarpen kualitatiboak jaso dira, bi bideren bitartez:

- Partaidetza irekia. Herritarren ekarpenak jasotzeko helburuz, galdera ireki bat egin da: *Zer behar da Tolosan euskararen erabilera indartzeko?* Herritarrek aukera izan dute proposamenak egiteko, buzoien bitartez eta webgunetik. 34 ekarpen jaso dira.
- Talde-eztabaidak. Zazpi interes-talde identifikatu dira, eta talde-eztabaidak egin kide esanguratsuekin: arlo sozioekonomikoa, hezkuntza, aisia eta kirola, gazteak, adinekoak, migratzaileak eta hedabideak. 40 lagunek parte hartu dute saio horietan.

3. Zirriborroa landu eta kontrastatu

Diagnostikoa osatuta eta iritziak jasota, plan estrategikoaren zirriborroa egin du Euskara eta Hezkuntza Sailak. Horretarako, oinarritzat hartu du Eusko Jaurlaritzak AROA planerako egindako proposamena, baita Tolosako Udalak aurreko urteetan onartutako planak ere. Zirriborro hori lantzeko bidean, kontrasteak egin dira arloz arloko adituekin eta eragileekin.

4. Planaren azken bertsioa egin

Zirriborroari egindako ekarpenak kontuan hartuta, planaren azken bertsioa prestatu da.



TOLOSAKO
UDALA

ARLO ESTRATEGIKOA

Nahi estrategikoa

Tolosan euskara-gaitasuna eta erabilera sendotzea, herritarrak eta eragileak ahaldunduta, euskara Tolosako ohiko hizkuntza izan dadin.

Misioa

Marko bat eta bide-orri bat izatea hurrengo hamarkadarako, euskal hiztunak sortzeko eta ahalduntzeko, euskararen komunitatea sendotzeko ere, eta, orobat, hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuta, gizarte justuagoa, ekitatiboagoa eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izatea, metodo irekiekin eta eragileen lankidetzarekin.

Ikuspegia

Datozen hamar urteetarako helburu-ikuspegi nagusi hauxe du planak:

- Euskararen transmisioa ziurtatua dago Tolosan.
- Tolosan oinarrizko hezkuntza amaitu duten ikasle guztiek badute gutxieneko euskara-gaitasuna.
- Tolosako gizarte-esparru guztietan daude euskal hiztun aktibo gehiago.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak eta iristen ari direnak euskarara hurbildu dira.
- Behar handiena duten herritarrei eman zaizkie euskarara hurbiltzeko babesak, laguntzak eta erraztasunak.
- Euskaraz bizitzeko aukera handiagoa dago Tolosan.
- Tolosako arnaguneen beheranzko joera eten da.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin dira.




TOLOSAKO
UDALA

ARLO OPERATIBOA

Plan estrategikoaren jarduna antolatzeko, lau maila edo kategoria erabili dira. Hauek dira:

1. Ardatz estrategikoak

Hizkuntza-politikaren azken xedeak zehazten dituzte. Zazpi ardatz dira, honela antolatuak:



2. Erronkak

Zer lortu nahi den adierazten dute, eta horiek lortzeko konpromisoa.

3. Lan-ildoak

Ardatzak zehazten dituzte, gaiaren arabera, eta egitasmoak gaika antolatzeko balio dute.

4. Ekimenak

Jarduera-programak edo -proiektuak definitzeko balio duten eragiketa-multzoak.

Tolosako Hizkuntza-politikako plan estrategiko honetan zazpi ardatz estrategiko eta hamabi erronka finkatu dira, eta horiek gauzatzeko, 39 lan-ildo eta 160 ekimen zehaztu dira.



GOBERNANTZA

Elkarlana eta koordinazioa funtsezkoak dira hizkuntza-politikak modu egokian garatzeko. Hori sendotzea izango da plan estrategiko berriaren jomuga nagusietako bat, hiru hanka nagusitan oinarrituta: Euskara eta Hezkuntza Saila, UEMA eta Galtzaundi. Tolosan ibilbide oparoa egin du euskararen sustapenak hamarkada hauetan, baina urrats handiagoak egin beharrean da: nahitaezkoa da, beraz, euskararen normalizazioa agenda politikoan jartzea. Horrekin batera, eta kontuan hartuta Tolosa eskualdearen erdigunea dela, hizkuntza-politikan eskualde-ikuspegia txertatu behar da, azken urteotan emandako pausoen bidetik.

Azken urteotan aldaketa sozial eta demografiko handiak gertatu dira Tolosan, eta horrek eskatzen du egokitzapenak egitea euskara indarberritzeko planteamenduetan, aniztasuna eta kulturartekotasuna aintzat hartuta. Finean, hizkuntza-politikak, berriazko politikez gain, zeharkako neurriak ere behar baititu, arlo guztietan, eta ildo hori indartzea izango da xedea.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Elkarlan-formula aitzindariak abian jartzea. 2. Migratzaileak euskarara ekartzeko ingurua. 3. Euskararekiko sentsibilitatea erakundeetan eta eragile askotan: adostasunezko giroa. 4. Udalerriko arnasguneak babesteko politikak. 5. Zeharkakotasun gero eta handiagoa Udaleko jardunean: espedienteetan, batzordeetan... 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza-eskubideak bigarren mailakotzat hartzea eta daukaten garrantzia ez ematea. 2. Euskararen egoeraren ikuspegi baikorregia: uste izatea ez duela behar sustatze handirik. 3. Hizkuntza-politikari buruzko eztabaidaren eragina: «inposizioari» buruzko diskurtsoak. 4. Burokrazia handiagoak dakartzan arazoak.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Udalaren zerbitzuetan herritarren hizkuntza-eskubideak ia erabat bermatzea. 2. Udalerri gutxi bezala, lankidetzat sendoko hiru hanka izatea: Udala-UEMA-Galtzaundi. 3. Hizkuntza-politikari buruzko adostasunak. 4. Eragile sozialekin hitzarmenen bide sendoa. 5. Eskualdeko ikuspegiaren emandako pausoak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Udaletik kanpoko eremuetan, publikoetan ere bai, hizkuntza-eskubideak ez bermatzea. 2. Erabateko koordinazioa izateko zailtasuna. 3. Iritsi berrien harrera-protokolorik ez izatea. 4. Euskararen eremutik urrunago dauden biztanle-sektoreetara iristeko ezintasunak.

G1. erronka: Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunean jartzea

G1.1. lan-ildoak: Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu

- G1.1.1. Udalean erabat bermatu hizkuntza-eskubideak, hizkuntza-irizpideak betearazita.
- G1.1.2. Udalaz gaindiko zerbitzu publikoen egoera aztertu (Osakidetza, Ertzaintza, Lanbide...).
- G1.1.3. Udalerriko eragileei laguntza eman hizkuntza egoki kudeatzeko (itzulpenak, tresnak...).
- G1.1.4. Hizkuntza-eskubideen garrantziaren diskurtsoa hedatu, beste balio batzuekin lotuta.
- G1.1.5. Hizkuntza-eskubideen berri emateko kanal errazagoak sortu, eta jarraibideak prestatu.
- G1.1.6. Hizkuntza-eskubideen urraketen jarraipena egin, udalaz gaindiko erakundeekin batera.

G1.2. lan-ildoak: Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu

- G1.2.1. Tolosako Euskararen Kontseilua egonkortu, elkarlanerako organo gisara.
- G1.2.2. Jarduera-planen ebaluazioa egin, metodologia batekin, eta Kontseiluari kontu eman.
- G1.2.3. Eskualdean hizkuntza-politika koordinatzeko organo bat sortzea bultzatu.
- G1.2.4. Eskualdeko euskara-teknikarien foroa sendotu, eskualdeko egitasmoak indartzeko.
- G1.2.5. Eskualdeko eskualtegien arteko koordinazio-mahaia sendotu, eskaintza osatzeko.
- G1.2.6. Tolosako Hezkuntza Kontseilua baliatu hezkuntza-arloko esku-hartzeak bideratzeko.



G1.2.7. UEMAn modu aktiboan parte hartu, zerbitzu-jasotzaile izatetik harago.
G1.2.8. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetza indartu, Udalekin foroan aktiboki arituz.
G1.2.9. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza indartu, eskualdeburu-izaera kontuan hartuta.
G1.2.10. Euskalgintzako eragileekin lotura sendotu, eta aurrez aurreko harremanak bultzatu.
G1.2.11. Euskalgintzarekin hitzarmenen bidea indartu: prozedurak erraztu eta garaiz bideratu.
G1.2.12. Genero-irizpideak kontuan hartu, eta, behar denean, aurretiazko ebaluazioa egin.
G1.3. lan-ildoak: Lidergoa eta konpromisoa indartu
G1.3.1. Askotariko formazioa eskaini arduradun politikoei eta udal-langileei.
G1.3.2. Euskararen indarberritzeari buruzko ikuspegi konpartituak landu, adostasuna helburu.
G1.3.3. Udaleko erabilera-planak garatu, jarraipena egin eta ebaluazioaren berri eman.
G1.3.4. Euskara-zerbitzuaren funtzioak eta lan-ildoak berrikusi, berrikuntza oinarri hartuta.
G1.3.5. Berrikuntzako eta esperimentazioko eragileekin lankidetzan aritu.

G2. erronka: Berariazko eta zeharkako hizkuntza-politika garatzea
G2.1. lan-ildoak: Eremu soziolinguistikoaren arabera hizkuntza-politika berezituak garatu
G2.1.1. Arnasgune izendatutako auzoetarako politika eta irizpide propioak landu.
G2.1.2. Euskaraz funtzionatzen duten eremuak eta eragileak identifikatu, eta lankidetzan aritu.
G2.2. lan-ildoak: Zeharkako hizkuntza-politika garatzeko estrategiak gauzatu
G2.2.1. Udaleko sailekin koordinazioa areagotu, euskara beren jardunean gehiago txertatzeko.
G2.2.2. Udaleko sailen bidez, herriko eragileekin harremana handitu, urrats praktikoak egiteko.
G2.2.3. Ordenantzen eta dirulaguntza-oinarrien tramitazioan hizkuntza-txostenak egin.
G2.2.4. Behar duten proiektuei Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin eta neurriak proposatu.
G2.2.5. EL Eren oinarrietatik abiatuta, beste arlo batzuetako politiketan txertatu ikuspegi hori.
G2.3. lan-ildoak: Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik
G2.3.1. Herriko aniztasunari hizkuntzaren ikuspegitik erreparatzeko diagnostikoa prestatu.
G2.3.2. Harrera-protokoloan hizkuntzaren ikuspegia txertatu.
G2.3.3. Euskaratik urrunago dauden komunitateekin harremana areagotu, aniztasuna oinarri.
G2.3.4. Aniztasun-arloan ari diren eragileekin lankidetzan aritu, hizkuntza aintzat har dezaten.
G2.3.5. Hizkuntza-teknologiak baliatu euskara ardatz izanik aniztasuna kudeatzeko.
G2.3.6. Kulturartekotasuna eta euskara oinarri dituzten proiektuak landu, bereziki hezkuntzan.

G3. erronka: Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatzea
G3.1. lan-ildoak: Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu
G3.1.1. Garabide elkartearikiko hitzarmena sendotu, Tolosan esku-hartzeak egiteko.
G3.1.2. Tolosarrekin erabiltzen dituzten beste hizkuntza gutxitu batzuei ikusgarritasuna eman.

G4. erronka: Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategiak garatu
G4.1. lan-ildoak: Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotu
G4.1.1. Gazteen kontsumo kulturala aztertu, joerak ikusteko eta proiektuak lantzeko.
G4.1.2. Euskarazko edukiak zabaltzeko udalerriz gairik egitasmoak Tolosan hedatu.
G4.1.3. Ikasleak euskarazko zinemara joateko programa hedatu (<i>Euskara zinema-aretoetara</i>).



JARRERA ETA MOTIBAZIOA

Euskarak sendotasun handiena duen eremuetako bat da jarrerarena eta motibazioarena: herritar gehienak ageri dira euskara sustatzearen alde. Areago, erabilera-datuetan ere nabari da motibazioaren eragina, gaitasun eta testuinguru aldetik espero daitekeen baino gehiago erabiltzen baita euskara, baita Tolosan ere. Ezbairik gabe, oinarri sendoa da hori.

Aldaketa sozialek bete-betean eragiten diote, ordea, eremu horri, eta ezinbestekoa da etengabe elikatzea jarrera eta motibazioa, horrekin hizkuntza-hautuetan eragiteko. Plan estrategiko honekin bi biztanle-multzotan eragin nahi da bereziki, lehentasunezkoztat jo baitira: batetik, umeetan eta gazteetan; bestetik, euskarara hurbildu ez diren erdaldunetan.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Galtzaundi Euskara Taldea sendotzea, euskaltzaleen bilgune nagusia eskualdean, maila nazionaleko mugimenduekin lotuta. 2. Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko hezitzaileak trebatzea, umeen eta gazteen hizkuntza-jarreretan eta erabileran eragiteko. 3. Ikastetxeekin sustapen-ekintza bateratuak lantzea, euskararen erabilera ardatz hartuta. 4. Erdaldunen presentzia handiko eragileekin lan egitea, haiekiko harremana sendotzeko. 5. Uztaritzerekiko senidetzea baliatuz, euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak egitea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Euskaltzaleen ekimena gutxitzea; funtzio asko erakundeen, egituren eta teknikarien lan gisa ikustea. 2. Aldaketak gaztetxoek hizkuntza-ideologian: euskara lehenestearen aurkako jokabideak. 3. Euskara sustatzearen aurkako jarrerak gero eta ageriago, nahiz eta oso mugatuak izan. 4. Euskaraldiaren eta era horretako ariketen itzala eta eragina ahultzea.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Aldeko jarrera eta motibazio sendoa. 2. Galtzaundiren gisako talde sendo bat izatea. 3. <i>Hedatu</i> hezkuntza-proiektua txertatua izatea ikastetxeek, eta Eusle ariketan denek parte hartzea. Programa horiekiko balorazio ona. 4. Euskaraldiak sortutako eragin-eremu berria. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Euskara eta euskal kulturaren ikusgaitasun oso murrizta gizarteko sektore batzuetan. 2. Hezkuntza ez-formaleko hezitzaileengana iristeko arazoak, haien egoerarekin loturik. 3. Parte hartzeko moduen eraldaketa azkarra. 4. Ahalduntze-saioak antolatzeko zailtasunak, partaidetzagatik (euskaldun zein erdaldun).

JM1. erronka: Euskararen aldeko jarrera areagotu, eta hiztunen ahalduntzean, ohituretan eta portaeretan eragin

JM1.1. lan-ildoak: Euskaldun izatearen kontzientzian eragin

JM1.1.1. *Hedatu* hezkuntza-proiektua garatu ikastetxeetan.

JM1.1.2. Lehen Hezkuntzan hizkuntza-portaeretan eragiteko saioak landu.

JM1.1.3. DBHn udalerrri euskaldunei eta arnasguneei buruzko edukiak landu.

JM1.1.4. Batxilergoan hizkuntza-portaerei eta udalerrri euskaldunei buruzko edukiak landu.

JM1.1.5. Gazteen hizkuntza-diskurtsoen jarraipena egin, eta esku-hartzeak proposatu.

JM1.1.6. Gazteen hizkuntza-gogoetan bultzatu, berriazko saioak proposatuta.

JM1.2. lan-ildoak: Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu

JM1.2.1. Hizkuntza-ohituretan eragiteko ekintzak antolatu eta parte-hartzea sustatu.

JM1.2.2. DBHko ikastetxeetan *Eusle* egitasmoa antolatu, hizkuntza-ohituretan eragiteko.

JM1.2.3. Korrika baliatu aktibaziorako tresna gisa, eta ikastetxeekin Korrika Txikia antolatu.



JM1.2.4. Korrikari buruzko informazioa bereziki eman euskaratik urrun dauden herritarrei.
JM1.2.5. Euskararen bueltako ekintza bateratu bat antolatu ikastetxe guztiekin elkarlanean.
JM1.2.6. Ikastetxeetako hezitzaileak trebatu, erabileran eragiteko.
JM1.2.7. Eskola-kiroleko eta hezkuntza ez-formaleko hezitzaileak trebatu, erabileran eragiteko.
JM1.2.8. <i>Arnasa gara</i> kanpaina zabaldu hezkuntzan, arnaguneen garrantziaz ohartarazteko.
JM1.2.9. Abizenak euskalduntzeko kanpaina egin, eta aldaketa egiteko informazioa zabaldu.
JM1.3. lan-ildoak: Euskaldunen hiztun-komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin
JM1.3.1. Euskaldunak ahalduntzeko saioak antolatu.
JM1.3.2. Galtzaundi Euskara Taldearen ikusgarritasuna indartu, euskaltzaleen bilgune gisa.
JM1.3.3. Udalerriko euskalgintzako eragileen egoitza-beharrak aztertu eta aterabidea eman.

JM2. erronka: Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu
JM2.1. lan-ildoak: Euskaldunen komunitatea sendotu
JM2.1.1. Uztaritzerekiko senidetzea indartu, eta euskara ardatz duten proiektuak antolatu.
JM2.1.2. Euskal komunitatean erreferentziazko diren ekitaldietara joateko erraztasunak jarri.
JM2.1.3. Euskal komunitatea sustatzeko kanpainak udalerrian hedatu.
JM2.1.4. <i>Salto</i> udalekuen zabalkundea egin, udalerrri euskaldunetako gaztetxoak elkartzeko.
JM2.1.5. Gazteek hizkuntza lantzeko eta hizkuntzarekin gozatzeko ekintzak antolatu.
JM2.1.6. Gau Beltzaren ospakizuna antolatu, eta ohiturak berreskuratzean eragin.
JM2.2. lan-ildoak: Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu
JM2.2.1. Turismoari begirako <i>Bertatik bertara</i> kanpaina zabaldu.
JM2.2.2. Turismo-eskaintzan euskara gehiago txertatu, Tolosaren funtsezko alderdi gisa.
JM2.2.3. Ekitaldi masiboen hizkuntza-inpaktua aztertu eta esku-hartzeak proposatu.
JM2.3. lan-ildoak: Euskal hiztun-mota eta komunikazio-egoera askotarikoak balioetsi
JM2.3.1. <i>Egin nirekin ere euskaraz</i> kanpaina egin, hiztun arrazializatuekiko jarreran eragiteko.
JM2.4. lan-ildoak: Euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri
JM2.4.1. Udal-euskaltegian, hasierako mailetan kokatze-saio bat egin.
JM2.4.2. Guraso erdaldunentzako saioak antolatu ikastetxeetan.
JM2.4.3. Familia etorri berriak euskara hurbiltzeko berariazko proiektu bat landu hezkuntzan.
JM2.4.4. Erdaldunen presentzia handiko eragileekin harremana handitu, eragiteko helburuz.
JM2.4.5. Euskara ikasteko eta erabiltzeko dauden aukerak ikusarazi.
JM2.4.6. Euskara sustatzearen aurkako diskurtsoei jarraipena egin eta esku-hartzeak landu.



EZAGUTZA ETA GAITASUNA

Euskararen ezagutzak aurrerapen handia egin du, eta adin-talde gazteenetan gehienek badakite euskaraz. Besterik da, ordea, zenbatekoa den gaitasuna: hiztunek zer erosotasun duten euskaraz aritzeko. Bietan eragin behar da: euskararen ezagutzan eta gaitasunean.

Familia-transmisioa eta sozializazioa elementu giltzarriak dira euskara indarberritzeko, eta hor ere garatu behar dira hizkuntza-politikak. Familia-transmisioaren alboan, bada bereziki indartu beharreko eremu bat: kultur transmisioa, eta horren ezagutza gizartean orokortzea.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultur transmisioa memoria historikoaren ikuspegitik lantzea, mendeurrenen atarian. 2. Udal-dirulaguntzak HABEren aldaketetara egokitzea, baliabideak optimizatzeko xedez. 3. Herritar etorri berriak euskaltegira ekartzea, eskaintza egokituta eta laguntzak bideratuta. 4. Udal Euskaltegiarentzat eraikin berria egitea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Udal Euskaltegian tarteko mailetako ikasle-kopuruaren egonkortasun falta: uzte-tasa. 2. Mintzalaguneko partaideen adin handia. 3. Lehen hizkuntza euskara duten herritarren ehunekoa jaitea: gaitasunean eragina du 4. Euskalduntzean tituluak daukan pisua. 5. Egiten den eskaintzak ez asetzea eskaera.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Jaioberriak errolatzean oinarrizko material bat ematea Udalak, lehenbiziko keinu gisa. 2. D eredia orokortuta oinarrizko hezkuntzan. 3. Ahozkotasuna lantzeko bertso-programa ikastetxe guztietan txertatuta. Balorazio ona. 4. Euskara-ikasleen dirulaguntzak areagotzea eta ordainketa ez aurreratzeko sistema. 5. Peñascalekin eta Inmakuladarekin Aisa programa sendotzeko eginiko hitzarmenak. 6. Mintzalagunaren ibilbidea eta egonkortzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Familia-transmisioan eragiteko tresna falta: haurdunen ikastaroetan txertatzeko arazoak. 2. Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa. 3. Udal-euskaltegiak web-orririk ez izatea. 4. Udal-euskaltegiaren ikusgarritasun txikia. 5. Euskara-ikasleentzako dirulaguntzetako bateratasunik eza (HABE eta eskualdea).

EG1. erronka: Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin

EG1.1. lan-ildoak: Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri

EG1.1.1. Belaunaldi arteko harremana sustatzeko ekintzak bultzatu, bereziki arnasmuneetan.

EG1.1.2. *Euskararen historia soziala Tolosaldean* lana hedatu hezkuntzan eta turismoan.

EG1.1.3. Euskararen eta euskal kulturaren ezagutza landu memoria historikoaren ikuspegitik.

EG1.1.4. Tolosako euskara-ondarea gizarteratzeko egitasmoak landu.

EG1.1.5. Bereziki emakumeek euskararen transmisioan egindako lana gizarteratu.

EG1.2. lan-ildoak: Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri

EG1.2.1. HHko aurrematrikulazioan familia-transmisioari buruzko datuak bildu eta aztertu.

EG1.2.2. Ume jaioberriak errolatzean, familia-transmisioaz ohartarazteko materiala eman.

EG1.2.3. Osasun-etxearekin elkarlanean, haurdunen ikastaroetan transmisioaren gaia jorratu.

EG1.2.4. Seme-alaben hizkuntza-ohituretan eragiteko gakoak eman gurasoei.



EG2. erronka: Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu
<i>EG2.1. lan-ildoak: Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu, eta tresnak onartu</i>
EG2.1.1. Aitzol Udal Euskaltegiko eskaintza behar eta aukera berrietara egokitu.
EG2.1.2. Aitzol Udal Euskaltegiaren funtzionamendua eta ikasmaterialak digitalizatu.
EG2.1.3. Aitzol Udal Euskaltegiaren web-orria sortu.
EG2.1.4. Aitzol Udal Euskaltegian asebetetze-inkestak egin, zerbitzua hobetzeko asmoz.
EG2.1.5. Aitzol Udal Euskaltegiaren egoitza berria egin, behar berrietara egokituta.
<i>EG2.2. lan-ildoak: Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu</i>
EG2.2.1. Euskara-ikasleen dirulaguntzak doakotasunerako bidean jarri.
EG2.2.2. Dirulaguntzen sistema egokitu HABEren finantzaketa-bideetara.
EG2.2.3. Mintzalaguna egitasmoa antolatu.
EG2.2.4. Mintzalaguna egitasmora kide berriak erakarri, bereziki gazteak.
EG2.2.5. Mintzalaguneko ekintza osagarriak proposatu.
<i>EG2.3. lan-ildoak: Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu</i>
EG2.3.1. Peñascalekin eta Inmakuladarekin itunak egin, ikasleei euskara-eskolak emateko.
EG2.3.2. Jatorri atzerritarreko herritarrentzako <i>Aisa</i> programako ikastaroak antolatu.
EG2.3.3. Euskara ikasteko erraztasunen berri eman atzerritar jatorriko elkarteetan bitartez.
EG2.3.4. Helduen Irakaskuntza Iraunkorreko zentroaren (EPA) bidez informazioa zabaldu.
EG2.3.5. Ostalaritzan ari diren atzerritar jatorriko herritarrekin esku-hartze berezituak egin.
<i>EG2.4. lan-ildoak: Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu</i>
EG2.4.1. <i>Gu ere bertsotan</i> programa hedatu LHn, bertsolaritza eta ahozkotatasuna lantzeko.
EG2.4.2. DBHn ahozkotatasuna lantzeko programa bat inplementatzea aztertu.



ERABILERA ETA ELKARRERAGINA

Erabilera da hizkuntzaren funtsa, eta plan estrategiko honen jomuga argia da: Tolosan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, hiztunek euskara eroso erabiltzeko modua izatea.

Horrek esan nahi du askotariko eremuetan handitu eta finkatu behar dela euskara erabiltzeko aukera: lehenik, erakunde publikoetan, Udaletik hasita, eta, hortik harago, zaintza-guneetan, aisialdian, eremu digitalean, hedabideetan, kulturaren arloan, merkataritzan... Arlo guztiak blaitu behar ditu euskararen aldeko hizkuntza-politikak, askotariko erabileretan eragiteko.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Euskaraz dakitenen ehuneko handia eremu batzuetan: erabilerarako orube eragingarria. 2. Udalean ahozko erabileran pausoa ematea. 3. Herriko eragileek euskaraz funtzionatzeko, itzulpenekin eta zuzenketekin laguntzea. 4. Teknologia berriak baliatzea euskarazko funtzionamendua sendotzeko. 5. Merkataritza handian eragiteko jarduerak abiaraztea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Etxeko erabileraren geldialdia. 2. Sektore batzuetan langile erdaldunen ehuneko handia: zaintza, ostalaritza... 3. Erabilerari buruzko irudi baikorregia, kaleko erabileraren bilakaeran bakarrik oinarrituta. 4. Egoera zaurgarriko ikasleen parte-hartze apala eskolaz kanpoko jardueretan. 5. Euskarazko errefortzuen eta programen koordinazio txikia: dispertsio handia. 6. Euskarazko mailegu gutxi liburutegian.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaleko erabileraren bilakaera ona. 2. Euskaraz funtzionatzen duten eremu asko. 3. Euskarazko toki-hedabide sendotuak. 4. Saltokietan aurrez aurreko lan egonkortua. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sektore zehatzetako langileek euskara ikasteko eta erabiltzeko proiektu zehatzik ez. 2. Udalaren dirulaguntzetan eta kontratuetan txertatutako irizpideen jarraipen txikia. 3. Arnaguneetarako berariazko politikarik eza. 4. Lan-eremuan eragiteko programarik eza. 5. Euskarazko hedabideen bateratasunik eza.

E1. erronka: Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu

EE1.1. lan-ildoak: Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu

EE1.1.1. Udala babesgune gisa sendotu, hizkuntza-eskubideak bermatzetik harago.

EE1.1.2. Kudeaketa pribatuko udal-zerbitzuak babesgune izateko programak garatu.

EE1.1.3. Euskaraz funtzionatzen duten espazioak eta eragileak sendotu.

EE1.1.4. Eragileekin hizkuntza-irizpideak eta hizkuntza-teknologiaren aukerak landu.

EE1.2. lan-ildoak: Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin

EE1.2.1. lurreamendi eta Uzturre egoitzetako langileak euskalduntzeko proiektu bat garatu.

EE1.2.2. Zaintza-ikasketetan ari diren ikasleei euskara-eskolak eman, Inmakulada ikastolan.

EE1.2.3. Zaintzan diharduten langileak euskaraz trebatzeko ikastaro-eredu bat landu.

EE1.3. lan-ildoak: Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortu erakunde publikoetan, eta aukeretan eragin erakunde pribatuetan

EE1.3.1. Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planak garatu.

EE1.3.2. Udal-langileekin trebakuntza-saioak egin, euskaraz lan egitea xede hartuta.

EE1.3.3. Udalak onartutako hizkuntza-irizpideen jarraipena egin.

EE1.3.4. Dirulaguntza izendunetan euskara erabiltzeko irizpideak txertatu, eta jarraipena egin.

EE1.3.5. Konkurrentziazko dirulaguntzen oinarrietan irizpideak txertatu, eta jarraipena egin.

EE1.3.6. Kontratazio publikoan hizkuntza-klausula egokiak txertatu, eta jarraipena egin.



EE1.3.7. Enpresetan euskara sustatzeko laguntzak eman, bertako behar eta aukeren arabera.
EE1.4. lan-ildoak: Tokiko hizkuntza-proiektuen bidez, hiztun osoak sortzeko estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu
EE1.4.1. Hezkuntza Kontseiluan landu hiztun osoak sortzeko ibilbidea eta jarduera osagarriak.
EE1.4.2. Euskara-errefortzuei buruz birplanteamendu bat egin, egungo premietan oinarrituta.
EE1.5. lan-ildoak: Aisialdi antolatua eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu
EE1.5.1. Programa bat diseinatu, egoera zaurgarriko ikasleak euskarazko ekintzetara joateko.
EE1.5.2. Aisialdiko eta kirol-arloko taldeekin prozesu bat egin, hizkuntza-kudeaketa hobetzeko.
EE1.5.3. Aisialdian eta kirolean erabileraren neurketak egin, eta esku-hartzeak proposatu.
EE1.5.4. Udalak antolatutako aisialdian bereziki landu erabilera, berariazko esku-hartzeekin.
EE1.6. lan-ildoak: Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi
EE1.6.1. Eragileen webguneetan eta sare sozialetan euskara lehenesteko egitasmo bat landu.
EE1.7. lan-ildoak: Euskarazko hedabideak bultzatu
EE1.7.1. Tokiko euskarazko hedabideen jarduna diruz lagundu, hitzarmenen bitartez.
EE1.7.2. Tokiko euskarazko hedabideak bateratzea bultzatu.
EE1.7.3. Tokiko euskarazko hedabideen egoitzen arazoak bideratu.
EE1.7.4. Tokiko euskarazko hedabideak sustatzeko kanpaina egin.
EE1.8. lan-ildoak: Euskarazko kultura-produktuak sustatu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko
EE1.8.1. Udal-liburutegiarekin batera, euskarazko irakurketa sustatzeko proiektu bat bultzatu.
EE1.8.2. Euskarazko irakurle-taldeen egoera aztertu, eta horiek indartzeko bideak landu.
EE1.8.3. Euskarazko kultur produktuei buruzko informazioa helarazi umeen familietara.
EE1.8.4. Kultur emanaldien jarraipena egin hizkuntzaren ikuspegitik: eskaintza eta eskaera.
EE1.8.5. Artistak ikastetxeetara joateko programa osagarri bat garatu udalerrri-mailan.
EE1.8.6. Euskarazko kultur sorkuntza ardatz duten saioak antolatu.
EE1.9. lan-ildoak: Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten
EE1.9.1. Saltoki txikietan aurrez aurreko bisitak egin, sentsibilizatzeko eta materiala emateko.
EE1.9.2. Sektorez sektoreko kanpaina berezituak egin, bakoitzaren egoera oinarritzat hartuta.
EE1.9.3. Merkataritza-saltoki handietan esku hartu, beste erakunde batzuekin batera.
EE1.9.4. Finantza-erakundeekiko hitzarmenari jarraipena egin, eta gehiago sinatzen saiatu.
EE1.9.5. Merkatarari-elkartearekin harreman jarraitua bermatu, hitzarmenen bidetik.
EE1.9.6. Establezimendu komertzialetan hizkuntza-paisaia euskalduntzeko laguntzak eman.
EE1.9.7. Gidabaimena euskaraz ateratzea sustatu, bereziki gazteei dagokienez.
EE1.9.8. Errenta-aitorpena euskaraz egitea sustatu.
EE1.9.9. Merkataritza euskara sustatzeko kanpaina nazionalak udalerrian hedatu.
EE1.10. lan-ildoak: Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsi euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan
EE1.10.1. Euskara sustatzeko ekintzen inpaktua aztertu, adingabeekiko jardunak lehenetsita.
EE1.11. lan-ildoak: Erakunde publikoek 16 urtetik beherakoentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueretan ohiko hizkuntza euskara izan dadin neurriak hartu
EE1.11.1. Udalak antolatutako jardueren jarraipena egin eta esku-hartzeak proposatu.
EE1.11.2. Aisialdiarekin lotutako jardueren azterketa egin eta esku-hartzeak proposatu.



TOLOSAKO
UDALA

EE2. erronka: Eremu sozio-geografiko euskaldunetan bereziki bermatu euskararen komunitatea indartzeko ekimenak

EE2.1. lan-ildoak: Arnasguneetan hizkuntza-komunitatea indartu

EE2.1.1. Komunitatearen trinkotasuna babestu, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren ildotik.

EE2.2. lan-ildoak: Eskualdeko ikuspegia kontuan hartu

EE2.2.1. Euskara sustatzeko politiketan kontuan hartu eskualdean inpaktu positiboa izatea.

EE2.2.2. Inguruko arnasguneek Tolosari egiten dioten ekarpena nabarmendu.



IKERKETA ETA SISTEMATIZAZIOA

Euskara indarberritzeko politikek etengabe behar dute eraberritzea, unean uneko premiei egoki erantzuteko. Ikerketak egin behar dira horretarako, hizkuntza-plangintzan landu nahi diren eremuetan errealitatea zein den ondo jakiteko. Tolosan bide oparago egin da ikerketa-arloan, batez ere kaleko erabileraren neurketari dagokionez, baina badago oraindik zertan pausoak eman: arlo zehatz batzuetan ikerketa xeheagoak behar dira, egoki esku hartzeko.

AUKERAK	MEHATXUAK
1. Neurketa espezifikoagoak egitea, kaleko datu orokorrez haragoko datuak biltzeko. 2. Zeharkakotasuna lantzea ikerketetan.	1. Ikerketen emaitzak egoki ez interpretatzea. 2. Kaleko neurketa desfasatua geratzea, aldaketa sozial eta demografikoen aurrean.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
1. Kaleko erabileraren neurketaren serie luzea.	1. Ikerketen emaitzak esku-hartze zehatzen bidez garatzeko arazoak hainbat eremutan.

IS1. erronka: Ikerketa bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko

IS1.1. lan-ildoak: Kaleko erabileraren neurketa sistematizatu

IS1.1.1. Neurketaren eredia aztertu, demografia- eta hirigintza-aldaketak kontuan hartuta.

IS1.1.2. Neurketa urteroko maiztasunarekin berritu, orain arteko datu sortarekin jarraitzeko.

IS1.1.3. Neurketa espezifikoagoak egin, kaleko argazki orokorretik harago joateko.

IS1.2. lan-ildoak: Ikerketak esku-hartzeekin lotu

IS1.2.1. Ikerketa- eta metodologiak lantzean, kontuan izan horien aplikagarritasuna.

IS1.2.2. Aurretiaz identifikatutako hutsuneak lantzeko ikerketak egin.

IS1.2.3. Udalerri zehatzetako ikerketak Tolosara ekarri, ondorioak esku-hartzeetara eramateko.

IS1.3. lan-ildoak: Berrikuntza sustatu ikerketan

IS1.3.1. Gai eta ikuskerak berriak landu ikerketaren arloan.

IS1.3.2. Zeharkakotasuna landu: bai hizkuntza-politikaren barruan, bai bestelako arloekin.



KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Euskara sustatzeko ekintzek benetako inpaktu soziala izan dezaten, ezinbestean landu behar da komunikazioaren esparrua: kontaktzen ez dena ez baita ikusten. Horrek esan nahi du ahalegin berezia egin behar dela sustapen-jardueren berri emateko eta herritarrek eskura dituzten zerbitzuen informazioa izateko. Xedea da lan hori eraginkortasunez egitea.

AUKERAK	MEHATXUAK
1. Euskara Sailaren webgunea egokitzea, informazio gehiago eta gaurkotua emateko.	1. Herritarrek ez izatea euskara sustatzeko egindako lanaren berri: komunikaziorik eza.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
1. Euskarazko hedabideekin harreman estua.	1. Inertziaren eragin handia komunikazio-eran.

KH1. erronka: Lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu, eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu
<i>KH1.1. lan-ildoak: AROaren komunikazioa landu</i>
KH1.1.1. Plan estrategikoaren berri eman, ahalegin berezia eginez interes-taldeetara iristeko.
KH1.1.2. Urteroko kudeaketa-planetan komunikaziorako mugari nagusiak.
<i>KH1.2. lan-ildoak: Komunikazio-bideak hobetu</i>
KH1.2.1. Euskara eta Hezkuntza Sailaren web-orria egokitu, eta informazio gaurkotua eman.
KH1.2.2. Euskara eta Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman.
KH1.2.3. Komunikazio- eta publizitate-moduei buruz hausnartu, eta, behar bada, aldatu.



TOLOSAKO
UDALA

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan estrategikoa egoki garatzeko, ezinbestekoa da jarraipena eta ebaluazioa egitea: aldi-an-aldian aztertzea helburuak betetzen ari ote diren eta zer egokitzapen behar diren.

Plana gauzatzeko eta ebaluatzeko, hiru bide jorratuko dira:

1. **Urteko kudeaketa-plana eta balorazioa.** Urtea hasterako, urteko kudeaketa-plana prestatuko da, non jasoko diren urte horretan jorratuko diren ekintzak, kronograma batekin eta ebaluazio-irizpideekin. Kudeaketa-planaren helburua izango da plan estrategikoan jasotako jarduerak garatzea, baita horien bueltan sor daitezkeen ekintza osagarriak bideratzea ere. Urteko iparrorratza izango da, finean. Garrantzi berezia emango zaio balorazioari, eta ahalegina egingo da ekintza bakoitzarekin oinarritzko ebaluazioa egiteko, aurretiaz adostutako metodologia baten bitartez. Horren helburua da ekintzen eraginkortasuna eta efikazia bereziki gogoan hartzea.
2. **Plangintzaldi erdiko ebaluazioa.** Hamar urterako plan estrategikoa da, eta erdian, bosgarren urtean, 2029an, ebaluazio sakonagoa egingo da: plan estrategiko osoa hartuko da aztergai. Ebaluazio horren helburua izango da ordura bitarteko bidearen balorazioa egitea, eta, horren argitan, hurrengo bost urteetarako moldaketak egitea.
3. **Amaierako ebaluazioa.** Planaren indarraldiaren azken urtean, 2034an, amaierako balorazioa egingo da: hamar urteko plan estrategikoaren balantzea. Egindako aurrerapenak eta hutsuneak jasoko dira, eta oinarri izango da hurrengo planerako.

Elkarlanaren eta gardentasunaren irizpideak kontuan hartuta, planaren garapenean eta ebaluazioan zeresan berezia izango du Tolosako Euskararen Aholku Kontseiluak. Batetik, Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra izango delako kudeaketa-planetan jasotako jardueri aldi-an-aldiko jarraipena egiteko organoa, Euskara eta Hezkuntza Sailaren ardurapean; bestetik, Kontseiluaren osoko bilkuretan landuko dira kudeaketa-planen mugari nagusiak eta urteko ebaluazioak, baita plan estrategikoaren erdiko ebaluazioa eta amaierakoa ere.

Egindako planak eta ebaluazioak helaraziko zaizkio Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrari, eta, gardentasunaren mesedetan, Udalaren webgunean jarriko dira.

Plan estrategikoa bera garatzeaz eta ebaluatzeaz gain, balorazioaren arloan arreta jarriko zaie planaren aurrerabidea eta norabidea erakutsi dezaketen bestelako datu estatistikoei ere: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuari, Inkesta Soziolinguistikoari, hezkuntzako ebaluazio diagnostikoei... Euskara eta Hezkuntza Sailak aldi-an-aldian aztertuko ditu datu horiek, eta horiei buruzko txostenak aurkeztuko ditu Euskararen Aholku Kontseiluan, hartara plan estrategikoaren helburuak egokitzeko edo, behar balitz, xede berriak jartzeko.